





## "Neure azazkalak zaintzen ditudan modu berean zaindu nahi izaten ditut nire bezeroenak"

Azazkalak zaintzea eta apaintzea arte bihurtu du Luba Nailsek. Manikura berezi eta modernoa nahi baduzu, hauxe da zure aukera

**LIUBOV PANTIUKHOVA**  
(Luba)

### • Nola hasi zinen zeregin honetan?

Errusian oso ohikoa da manikura egitea, eta duela bost urte Elgoibarrera bizitzera etorri nintzenean, merkataritza gune batera joan nintzen manikura egitera. Han, gehiegi limatu zizkidaten azazkalak gelak hobeto hel zezan eta itxuragabe utzi zizkidaten. Ematen zuten zerbitzua ikusita, ikastaro bat egitea erabaki nuen neure azazkalak neuk konpondu ahal izateko. Neure buruari egin ahal izateko hasi nintzen manikura ikasten, baina gero familiakoei eta lagunei egiten hasi nintzen, afizioz. Jendeari gustatzen zitzaion nola lan egiten nuen, eta Agurtzaine ile-apaindegian aukera eman zidaten han lanean hasteko.

### • Zeintzuk dira jendeak gehien eskatzen dizkizun zerbitzuak?

Ohikoena manikura osoa egitea izaten da, iraupen luzeko esmalteduna. Jendeak gehienbat manikura frantsesa egitea eta kolore argiko esmaltea ematea eskatzen ditu, apaingarriren batekin. Hasieran, oso gutxi ziren manikura deigarriak edo ezberdinak eskatzera ausartzen zirenak, baina pare bat manikura egin ostean, jendea hasten da gauza berriak probatzen. Azkenaldian, asko eskaintzen ari naiz beste zerbitzu bat ere, adineko jendeari zuzenduagoa, kutikularik apenas duen eta esmaltatze normala nahiago duen jende horri zuzendua. CND Vinylux esmaltatzea da.

### • Zer da Vinylux?

Iraupen luzeko esmaltea da Vinylux. Bezero batzuei hiru astez ere irauten die. Ohiko esmalteak egunetik egunera hondatzen dira. Vinylux, aldiz, lehortu egiten da denborarekin eta argi naturalarekin, eta egun gehiagoz irauten du. Kendu, berriz, gainerakoak kentzen diren modu berean kentzen da.

### • CND marka erabiltzen duzu beti?

Marka jakin baten aldeko apustua egin aurretik, denbora luzez ibili nintzen bat eta beste probatzen, harik eta arazo gutxien eta alergia gutxien eragiten zuen esmaltea topatu arte. CND merkaturko markarik garestienetakoa da, baina,aldi berean, azazkalak ondoen zaintzen dituen ere bada. Ez dauka hauetako osagai kaltegarri bat bera ere: tolueno, alcanfor, formaldehido, BDP, formaldehido erretxinarik, xileno eta metiletilcetonarrik. Emateko eta kentzeko, ez da beharrezkoa azazkalak limatzea. Eta nik neure azazkalak zaintzen ditudan modu berean zaindu nahi izaten ditut nire bezeroenak.



### • Non egiten duzu lan?

Agurtzane ile-apaindegian txanda eskatu eta han izango nauzue. Modu asko dituzue nirekin harremanetan jartzeko. Ile-apaindegira deituta har dezakezue txanda, baina baita Facebook bidez ([www.facebook.com/lubanails22](http://www.facebook.com/lubanails22)) edoeta 634 414 195 telefono zenbakira deituta edo whatsapp idatzita ere. Ile-apaindegiko ordutegietara moldatu ezin daitekeenari neure etxean ere ematen diot zerbitzua. Eta orain, etxez etxe hasteko asmoa ere badut.



NORA HADI

*“Hemendik. Gure arazoak arazo ez diren tokitik. Sakelako telefonoa bateriarik gabe gelditzen denean mundua amaitzen ez den lekutik”*

**H**emendik. Milaka kolore bereganatzen dituzten zomorroetatik. Hemendik; kalte egiten duten ur txorrotetatik. Bide gurutze bakoitzean dauden umezurztegietatik. Hemendik; ospitale gutxi dauden tokitik, langileen baldintza kaxkarretatik, diagnostikatu ezin daitezkeen milaka gaixotasunen lurraldetik, eskuragarri ez dauden tratamenduetatik, gizarte atzeratu honetatik, emakume feministen isilpeko ahotsetatik, ikasleak jotzen dituzten irakasleen makiletatik...

Baina baita ere hemendik, Garazi. Lasaitasuna ardatz duen eta korrika egiteari zentzurik hartzen ez dion gizarte honetatik. Irri-barreak prezio erdira saltzen dituzten aurpegietatik, eskuzabalak diren besoetatik. Ile kixkurra eta beltzetan beltzenak diren azaleetatik. Diru gutxirekin bizitzen dakiten poltsikoetatik. Umeak entrenitzeko tabletik behar ez duten gurasoetatik, eta barre... , barre

ganoraz egiten dakitenetatik. Erlijio ezberdintasuna, ezberdintasun kontsideratzen ez duten sinestunetatik. Eskaleekin ezikusiarrena egiten erakutsi ez zaien pertsonetatik. Masai-en txaboletatik. Irletako ur gardenetatik. Kilimanjaro berdetik eta sabanatik; lehoiak eta jirafak eta elefanteak eta zebrak...

Hemendik. Gure arazoak arazo ez diren tokitik. Sakelako telefonoa bateriarik gabe gelditzen denean mundua amaitzen ez den lekutik. Bazkalorduan ahora eramateko zerbaiteko dagoela eskertzen den etxetik. Erropek modaz edo generoz ulertzen ez duten eskoletatik.

Eta oroitzea omen da denbora gelditzeko era bakarra... baina oroitzea ez da berriro bizitzea. Horregatik, bueltatuko gera! Buelatuko naiz!

Nik, Afrikatik. Eta zuk.... handik, nondik, Garazi?



GARAZI AYESTA


*“Nik ere hemendik, Nora. Hilezkorrak, gazteak eta infinituak garela sinetsi ohi dugun arren, bizitzen eta hiltzen garen lekutik”*

**T**rasladatu nauzu, kasik, Afrikara. Hasi naiz barre al-gara horiek entzuten eta zomorren kolore biziak nire sentitzen. Imaginatu ditut ile kixkurduen beltzaranak El-goibarko kaleetan barrena, hanka-hutsik, akaso. Eta ostadarrak beste kolore dituzten trapuak soinean jantzita. Begiak irekita eraman nauzu hara, zu zauden munduaren infinitu gazi-gozi horretara, Nora. Hemendik horren exotiko ematen duen paradisu malapartatu hartara... Imaginatzen dut, bai, kontrajarria ari dela izaten zuen hango egonaldia... Hainbeste eta hain gutxi instante berean.

Eta zein merkea den bizia batzuetan, ezta? Zeinen garesti

saltzen dugun hemen, “lehen munduan”, gizarte aurreratu eta progresista honetan... Zenbat jira eta bira eta preokupazio. Zenbat sendagai, zenbat botika, arimari. Zenbat ibuprofeno zainetan, ajearentzako eta buruko minarentzako eta ondoezarentzako eta bakardadearentzako. Eta gero, hil egiten gara gu ere, Afrikan bezala. Ez berdin, gozoago edo leunago agian, baina hil, azken finean.

“Nondik”, galdetu didazu, Nora. Nik ere hemendik, Nora. Hilezkorrak, gazteak eta infinituak garela sinetsi ohi dugun arren, bizitzen eta hiltzen garen lekutik. Elgoibartik, eta Afrikatik.



ARGITARATZAILEA:



Kalebarren plaza, 2 - 20870 ELGOIBAR  
943 744 112  
Publizitatea: 943 743 704  
[barren.publi@elgoibarkoizarra.eus](mailto:barren.publi@elgoibarkoizarra.eus)  
[barren@elgoibarkoizarra.eus](mailto:barren@elgoibarkoizarra.eus)  
[www.barren.eus](http://www.barren.eus)

BARREnek bere gain hartzen du espazio arazoengatik iragarriak lekuz aldatzeko eskubidea. BARREnek ez du bere gain hartzen Iritzia, Zozoak Beleari eta eskuittzak aialetan adierazitakoen erantzukizunik. **KOORDINATZAILEA** Ainhoa Andonegi **KAZETARIAK** Ainhoa Andonegi, Asier Orbea, Ainara Argoitia **HIZKUNTZA ARDURADUNA** Ainara Argoitia **PUBLIZITATEA** Leire Rubio **MAKETATZAILEA** Zalaa Arnaiz **ATARI DIGITALEKO ARLO TEKNIKOAREN ARDURADUNA** Aitor Lauzirika **ADMINISTRARIAK** Amaia Arrizabalaga, Nerea Osoro **KOLABORATZAILEAK** Garazi Ayesta, Nora Hadi, Ibon Serrano, Arkaitz Irureta, Nora Kortaberria, Nerea Gurrutxaga, Andoitz Agirregomezkorta, Abel Arriaga, Inma Mugertza, Ander Izagirre, Ana Alberdi, Eneko Iturbe, Eire Vila, Mikel Olaizola, Manu Sanchez, Unai Villena, Iosu Juaristi, Ainhoa Lendinez, Iñigo Lamelas, Jose Luis Azpillaga, Julen Ansola, Edurne Izagirre, Alain Ulazia, Paula Heras, Eneiz Ezenarro, Jesus Jimenez, Mikel Artola, Iñaki Odriozola, Ander Mujika, Ander Sorraluze, Arantza Etxeberria, Irati Agirreazaldegui, Maddi Mendibil, Haizea Beristain **INPRIMATEGIA** Gerutu Koop. E. **TIRADA** 4.860 ale **LEGE GORDAILUA** SS-1.038/92 **ISSN** 1138-1855

BABESLEA:



LAGUNTZAILEAK:



**EUSKO JAURLARITZA**  
**GOBIERNO VASCO**

**KULTURA ETA HIZKUNTZA**  
**POLITIKA SAILA**

(Hezkuntza Politikarako Sailburuordetzak) diruz lagundua

BARRENEK ez du bere gain hartzen IRITZIA eta ESKUTITZAK ataletan adierazitako enantzikizunik. Eskutitzak ondo identifikatuta egon behar dute. Ez ahaztu izen-abizenak, NANa eta telefonoa jartzea. Bidali helbide honetara: [barren@elgoibarkoizarra.eus](mailto:barren@elgoibarkoizarra.eus)

### ► ESKERRIK ASKO

Eskerrik asko, eskerrik asko eta eskerrik asko! Eskerrik asko Iluntze Solidarioa posible egin duzuen guztioi! Eskerrak, gurekin Herriko Antzokian izan zineten guztioi, haur, gazte, heldu eta nagusiei!

Gau magikoa izan zen! Zenbat sentsazio, zenbat emozio! Urduritasuna, gertutasuna eta talde lanaren bul-tzakada, guztia antolatzerakoan; negargurea, amorrua eta inpotentzia, *Wait, just wait* dokumentala ikustean; eta argitasuna, esperantza, indarra eta elkartasuna, Izaroren kontzertuaz gozatzean.

Han atzean geunden gu, 2-dean taldekoak, Herriko Antzokia betetzen zenuen guztion burutxoei begira. Barruak mugituta, hilobi batean bageunde bezala isiltasuna egin zen errefuxiatuek jasaten dituzten egorak ikusi ostean; denok izoztuta! Bat-batean, emakumezko ahots goxo batek, berriz argitu eta berotu zituen zuen aurpegi zurbilak! Iزارo Andresen elkartasun kontzertua, herri honen, Elgoibarren, elkartasunaren islada izan zen!

Han, Chiosen, eta beste leku askotan dauden errefuxiatuak beti present izanik, lanean jarraitzeko indarra eman zigun kontzertuak. *Acción ciudadana, antes de la gubernamental!*, zioen Izarok. Egi galanta!

Jakin dezatela, entzun dezatela, ez gaudela ados! Ahal dugun neurrian laguntzen jarraituko dugula! Errefuxiatuek badakite, beraiek argi diote dokumentalean: *vemos que la gente de Europa es buena, nos ayudan; los gobernantes no!*

Iluntze Solidarioan parte hartu duzuen guztiok, konszienteki edo ez, pantailea handi hartan ikusi eta entzun zenituzten perstonei eta etorriko direnei lagundu diezue, zuen presentzia hutsarekin! Mila esker bihotzez, haien partez!

Guztion artean, mundu hobeago bat posible dela sinisten dugulako.

**2-dean taldea**

### ► ESKERRIK ASKO

Elgoibar Ikastolaren izenean eskerrak eman nahi dizkiegu joan den igandean, apirilaren 2an, ospatutako XXIV. J. Gurrutxaga Krosa Batzordea

tzaga Krosa antolatzen lagundu zuten guztiei: Jai Alai taberna, Iturri taberna, Usua kafetegia, Mahats ardotegia, Larre eta Arkupe eta batez ere, BM, Alcorta Forging Group, Danobar Group, Lauko M.H., Ipar Spindle, Alyco, Besa, Elgoibarko Udala, Elgoibarko Udal Kirol Patronatua, Bacalaos Alkorta, Gaindu, Etxetar, Kutxabank, Caja Laboral, Egile, El Diario Vasco, Egotoki, Gare Radio Club, Biena Aroztegia, Elgoibarko Lagun Taldea, Larserlan, Mancisidor, Tximi, HRE Hidraulic eta Esayde.

Bestalde gure eskerrik beroenak baita ere parte-hartzaile guztiei.

Datorren urtean, apirilaren 22an ospatuko den XXV. J. Gurrutxaga Krosa antolatzen laguntzeko prest egongo zaretelakoan, agur bero bat.

**J. Gurrutxaga Krosa Batzordea**

### ► OHARRA

Aste Santuko oporraldia dela-eta, datorren ostiralean, apirilaren 14an, ez dugu BARRENik kaleratuko. Hurrengo alea apirilaren 21ean jasoko duzue.

**BARREN**



## Maria Mercedes Azkue Unzueta

2017ko martxoaren 30ean hil zen, 84 urte zituela. Sendiak bihotzez eskertzen ditu jasotako doluminak, bai eta hileta elizkizunetara agertu izana ere.



III. URTEURRENA

## Manuel Loiola Iriondo

2014ko apirilaren 9an hil zen, 82 urte zituela. Haren oroimenez III. urteurrenako meza izango da, domekan, apirilaren 9an, 12:00etan, Mendaroko Azpilgoetako elizan. Joango zaretenoi alde zurretik eskerrak.



## Mendaron eraiki asmo duten kirolerako eta aisialdirako guneak ez die herriaren benetako beharrei erantzuten, EAJren ustez

Osipitale azpian kirolerako eta aisialdirako gune berri bat sortu asmo dutela jakinarazi zuen Mendaroko Udalak orain hamabost egun eta EAJk oharra atera du eta etxez etxe banatu horren inguruko bere iritzia emanez. EAJk uste du gune horretan egin asmo dituzten azpiegiturek ez diotela erantzuten herriaren benetako beharrei. Iruditzen zaie Mendaron frontoia eta ikastolako patio estalia izanda, ez duela zentzurik padeleko kantxa bat eta erabilera anitzerako estali gabeko kantxa bat eraikitzeak leku horretan. Era berean, ur-txorrotei ere politak irizten diete uda sasoirako, baina hemen uda motza dela nabarmendu dute eta udarako bakarrik instalazio bat sortzeari ez diote zentzurik topatzen. Horren ordeztu aproposagoa ikusten dute padeleko kantxa hartuko duen eraikin hori gaur Azpilgoetako Kultur Etxean "baldintza txarretan" egiten

diren dantza, aerobic, balet eta antzekoetarako egokitzea, edo eta, adibidez, muskulazio gela bat edo spinning egiteko gela bat jartzea, aldagela eta guztiduna. Jakin badakite Foru Aldundiak arautua duela ez duela finantzaturiko kirol instalaziorik Mendaroren antzeko ezaugarriak dituen herri batean, beti ere frontoia dagoen kasuetan, baina nabarmendu dute Mendaroko Udalak "egoera ekonomiko ona" duela eta baduela halako inbertsio bat egiteko beste diru. "Orain egiteko asmoa dutenak ere ez du kostu txikia", esan du Irune Berasaluzek. EAJk onartu du kiroldegi bat ez dela bideragarria Mendaron, baina egitera doazenak baino erabilera handiagoa izango duen gunea egitea bai. Esan du proiektu horrekin tematu beharrean EHBilduk hobe lukeela herritarrei galdetzea, jakitzeko zeintzuk diren zehazki kirolzaleek dituzten beharrak.

## Gorazarre egin diete frankistek indarrez kanporatu zituzten emakumeei



Gipuzkoako diputatu nagusiak, Markel Olanok, erakunde aitortza eta miresmena eskaini zien joan zen ostegunean frankistek 1937an euren herrietatik indarrez bota zituzten gipuzkoarrei, gehienak emakumeak eta haurrak. Gipuzkoan 750 lagun inguru kanporatu zituzten, hamahiru bat herritatik, tartean Elgoibartik eta Mendarotik. Ekitaldian, hamahiru herri horietako alkateek parte hartu zuten, tartean Ane Beitia Elgoibarkoak eta Sonia Garcia Mendarokoak. Olanok esan zuen badela ordua emakume horiek lehen planora ekartzeko. Hain zuzen ere, helburu horixe du *Ama, nora goaz?* fimak, Gipuzkoatik egotzi zituzten emakume eta umeen ibilerak agertzen duen filmak. Apirilaren 20an, Herriko Antzokian ikusteko aukera izango da, 20:30ean (doan).

## Hilabetez, hirugarrenez sartu dira lapurrak Elgoibarko musika eskolara

Astearte goizaldean lapurretan egin zuten Inazio Bereziartua Musika eta Dantza Eskolan. Kafe makina indarrez zabaldu zuten, eta bulegoetan sartu ziren lapurrak. Hilabetez, hirugarren aldia da lapurrak musika eskolan sartzen direna. Aurreko bi aldietan egun argiz sartu ziren, baina ez zuten gauza askorik ostu. Ertzainek ohartarazia zieten musika eskolakoei behin sartu baziren arriskua zegoela lapurrak hirugarrenez ere saiatzeko lapurreta egiten.

## Zabalik dago Trinitateetako azokarako izena emateko epea

Ekainaren 10ean egingo dute aurtengo Trinitate jaietako azoka berezia, Elgoibarko Udalak eta Debemen elkarteak antolatuta. Debemenetik jakinarazi dutenez, Elgoibarko baserriar guztiak daude gonbidatuta azokan parte hartzera, eta dagoeneko zabalik dago izena emateko epea. Interesatuek Debemeneko 943 744 067 telefono zenbakira deitu behar dute izena emateko, datorren apirilaren 28a baino lehen.

## Tokiko komertzioa sustatzeko hitzarmena sinatu dute Elgoibarko Udalak eta Txankakua merkatarien elkarteak

Elgoibarko Udalak eta Txankakua Elgoibarko Merkatarien Elkarteak lankidetzan hitzarmena sinatu dute tokiko komertzioetako salmentak sustatzeko eta Elgoibarko denda txikietan erosketak egiten dituzten bezeroak saritzeko. Txankakua elkarteko saltokiek bi pertsonentzako zinerako sarrerak zozkatuko dituzte 2017ko apirila, maiatza, urria, azaroa eta abenduan zehar erosten duten bezeroen artean. Datafonoaren bidez erosketak ordaintzen dituztenen artean ausaz aukeratuko dira sari-dunak, eta saridun bakoitzak bi sarrera eskuratuko ditu. Sarrera Herriko Antzokiko lehiatilan jaso beharko da proiektioaren egunean bertan. Antolatzaileek jakinarazi dute sarrerak ezingo direla diruagatik trukatu, eta iraugitze-data izango dutela.

### Uxue Alberdi eta Jasone Osororen liburu bana aukeratu dituzte Juul hauteskundeetan

Hemeretzigarren urtez, Ikastolen Elkarteak Juul literatur hauteskundeak egin zituen martitzenean. Euskal Herriko ikastoletako 17.099 ikaslek parte hartu zuten liburu gustuena aukeratzeko bozketan eta 8.900 ikaslek, ilustratzaile onena aukeratzekoan. Bozketak egiteko bi sistema erabili dituzte: betiko boto-txartela eta bozketak elektronikoa. Aukeratutako liburu gustuena artean Uxue Alberdiren *Bi kobazulo* eta Jasone Osororen *Ezekiel* daude. 8-10 urtekoen artean bigarren sailkatu da Uxue Alberdiren liburua, Toti Martinez de Lezearen Nur eta banpiroen dantza liburuaren atzetik. Eta 12-16 urte bitartekoek gustuena izan da Jasone Osororen *Ezekiel* lana.

## Gure Esku Dagok lokala hartu du San Frantzisko kalean

Maiatzaren 7an egin asmo duten herri galdeketa begira, lokala hartu du Elgoibarko Gure Esku Dagok San Frantzisko kalean, eta taldekideek jakinarazi dute norbaitek galdeketa inguruko zalantzarik balu edo egun horretan prestaketetan lagundu nahiko balu, gustura entzungo diotela lokalean. Hilabete falta da galdeketa iragarrita dagoen eguna iristeko, eta motorrak berotze aldera, herritarrei talde argazkiak bidaltzeko eskatu die Gure Esku Dagok, ekimen honi babesa erakusteko. Kaxeta eta Sallobente elkartekoen eta Elgoibarko ezker abertzalekoen argazkiak jaso eta partekatu dituzte sare sozialetan. Elgoibarren ez ezik, Eibarren, Soraluzen, Mutrikun, Deban eta Itziarren ere gauzatuko dute erabakitze eskubidea maiatzaren 7an. Debabarrenean, 16 urtez gorako 46.500 herritarri emango die hitza Gure Esku Dagok.



Kaxeta elkarteak.



Gure Esku Dagoko kideak, lokal berriaren aurrean.



# Prest dute udaldirako eskaintza

**Atxutxiamaiak eta Udal Ludotekak elkarlanean prestatu dute Udaldirako eskaintza. Eskaintza zabala prestatu dute, HH2tik LH6ra arteko ume eta gaztetxoentzako, eta bakoitzak bere adinaren araberako planak aukeratu ahal izango ditu. Izena emateko epea apirilaren 24tik maiatzaren 7ra bitartean izango da.**

- AINHOA ANDONEGI -

Haur Hezkuntzako bigarren mailatik hasita Lehen Hezkuntzako seigarren mailara arteko umeentzako eskaintza prestatu dute Atxutxiamaiak eta ludotekak, Udalarekin lankidetzan. Ekintza horietan parte hartu nahi dutenek aurrez eman beharko dute izena, eta antolatzaileek gogorarazi dute plazak mugatuak izango direla. Ekintza bakoitzak bere prezioa izango du, eta nahi izanez gero, bi epealditan ordaintzeko aukera ere badago. Horrez gain, DSLB (AGI), DBE (RGI) eta GLL (AES) jasotzen dituzten familiek %70eko deskontua izango dute, eta familia ugarietzako edo bigarren seme-alabagatik deskontua %30ekoa izango da. Interesatuak apirilaren 24tik maiatzaren 7ra bitartean eman beharko dute izena Elgoibarko Izarran, Ludotekan edo [www.elgoibarkoizarra.eus](http://www.elgoibarkoizarra.eus) webgunean.

## 'APARIKETAN' (HH2-HH4)

Txikientzako bi txanda egongo dira. Ekainaren 26tik uztailaren 7ra lehenengoa eta uztailaren 10etik 21era bigarrena. Txanda bakoitzaren prezioa 60 eurokoa da (54 eurokoa Ludotekako edo Elgoibarko Izarrako bazkideen kasuan). Umeak bi txandetara bidaliz gero, 108 eurokoa izango da (97 euro bazkideen kasuan). Egitasmoaren ordutegia 9:00etatik 13:00etara bitartekoa izango da, eta elizako arkupeetan batuko dira. Hala ere, 7:30etik aurrera Goiz Txoko zerbitzua eskainiko dute. Zerbitzu hori nahi izanez gero, antolatzaileei jakinarazi beharko zaie.

## 'FIRIN-FARAN' (HH5-LH1)

Kasu honetan ere ekainaren 26tik uztailaren 7ra izango da





# Atxutxiamaikak eta Udal Ludotekak

lehen txanda, eta bigarrena, uztailaren 10etik 21era.

Txanden prezioak 72 eurokoak dira (65 bazkideen kasuan). Bi txandetara joanez gero, prezioa 130 eurokoa izango da (117 euro bazkideek). *Firin-Faran* egitasmoa ere 9:00etatik 13:00etara izango da elizako arkupeetan, baina eguenetan egun osoko irteera izango dute, eta umeak 18:00etan itzuliko dira. Hemen ere, Goiz Txoko zerbitzua egongo da aukeran, 7:30etik 9:00etara.

## 'ABIXADAN' (LH2-LH3)

*Abixadan* egitasmoaren ordutegia ere 9:00etatik 13:00etara izango da, baina kasu honetan Maalan batuko dira umeak. Hauek ere egun osoko irteerak egingo dituzte eguenetan. *Abixadan* egitasmoaren barruan hiru txanda daude aukeran. Lehengoa ekainaren 26tik uztailaren 7ra izango da. 72 euro balio ditu horrek (bazkideentzako prezioa 65 euro). Bigarren txanda uztailaren 10etik 18ra izango da, eta horrek 48 euro balio ditu (bazkideentzako prezioa 43 euro). Azken txanda Askizu aterpeteko egonaldia izango da, uztailaren 19tik 21era, eta horren prezioa

72 eurokoa izango da (bazkideentzako prezioa, 65 euro). Hiru txandetan izena emanez gero, *Abixadan* egitasmo osoaren prezioa 173 eurokoa da (bazkideentzako, 156 euro).

## 'ALDENIK-ALDEN' (LH4-LH6)

Nagusienek *Aldeni-Aldenen* eskaintza zabalaz gozatu ahal izango dute. Alde batetik, astekako eskaintzan iluntze pasak (martitzenetan), arratsalde-pasak (eguaztenetan), egun-pasak (eguenetan) izango dira. Astekako eskaintza hau uztailaren 3tik 14ra izango da, eta 48 euroko prezioa izango du (bazkideentzako 43 euro).

Beste alde batetik, bi egonaldi iragarri dituzte: Ekainaren 26tik 29ra Zuhatza uhartera joango dira. 96 euro balio ditu egonaldi honek (bazkideentzako prezioa 86 euro). Uztailaren 17tik 19ra, bestalde, Askizura joango dira. 72 euro balio ditu egonaldi honek (bazkideentzako prezioa, 65 euro).

Hiru txandetan izena ematen dutenek 194 euro ordaindu behar dituzte (bazkideek, 175 euro).



# Euskarak batuta, K o r r i k a

**E** guaztenean pasatu zen Korrika Elgoibar eta Mendarotik. 6:20an hartu zuten lekua elgoibartarrek Azkarate gainean, eta 7:00etarako iritsi ziren Maalara. Herritarrek eta Mauxitxa txarangak egin zieten ongi-etorria korrikalariari. Euria eta hotza ziren nagusi, baina elgoibartarrek berotu zuten giroa euren kanta eta euskararen aldeko oihuekin. Herra zeharkatu ostean, Mendarorako bidea hartu zuen Korrikak.

Hogeigarren aldiz zeharkatu du AEKren egistamo honek Euskal Herria. Martxoaren 31n abiatu zen Otxandiotik, eta domekan bukatuko da Iruñean.

Argazki bilduma eta bideoak: [www.barren.eus](http://www.barren.eus)



AEK euskaltegia



Surya belar denda.



Eixepe



Danobat Koop.



Ideko Koop.



Alcortako LAB sindikatua



Haritz Euskal Dantzari Taldea



IMH-Herri Eskola, Meka, BH Institutua, Haur Eskola



Mauxitxa txaranga




San Lazaro egoitza



Elgoibarko Udaleko Euskara Saila



Elgoibarko Udaleko langileak



Felix Etxeberria

ELGOIBAR



Elgoibarko Izarra Euskaltzaleon Topagunea



Elgoibar Ikastola



EH Bildu



EAJ



Sanlo



Txankakua Merkataria eta Zerbitzu Elkarte



Gazte Asanblada



Rodisako LAB sindikatua



Kimetz elkartea



Haizea emakume taldea



Korrika Txikia.



Korrika Gaztea (Arg.: Edurne Bilbao)



# MENDARO



Mendaro Ospitala / ESI Debarrena



Motxaila Band eta Motxaila Elkarte



Mendaro Ikastola



Arno Guraso Elkarte



Ameikutz musika eskola.



Giza proba taldea



Bustin-Alde, Aizpe eta Kilimon elkarteak



Gazte asanblada




Mendaroko Txirrindulari Elkarte



Mendaroko Udala

**Korrika Txikia** .....



**PHILIPS LED 43"**



**399€**

43PUH6101/88

A+

4K ULTRAHD

**WMF PERFECT 6,5L  
LAPIKO AZKARRA**

Altzairu herdoilgaitza 18/10



**129€**

**BOSCH AMERICANO  
KAN58A45**



349 litro

NO FROST

hatz marka  
kontrakoa

A+

**1199€**

Dendako prezioak. Produktuak agortu arte.

**MILAR BIRE**

Ubitarte, 11 - 943 741 487 - [bire@milar.es](mailto:bire@milar.es)



**50 urte zuekin bidaiatzen**

**EZKONTZAK ETA JAUNARTZEAK 2017!**  
Zugan pentsatu dugu,  
itzulerako bidean pentsa ez dezazun!

Pol. Ind. Igarualdea, 27  
20850 Mendara - Tel. 943 741 677  
[www.dariobus.com](http://www.dariobus.com) - [clientes@dariobus.com](mailto:clientes@dariobus.com)



**MEKANOSA**

Errosario, 27  
Tel: 943 74 02 84 Elgoibar

- ★ IDAZMAKINEN SALMENTA  
ETA KONPONKETA
- ★ MULTIKOPISTAK
- ★ FOTOKOPIADORAK
- ★ ERLOJU INDUSTRIALAK
- ★ MARRAZKETA  
MATERIALA
- ★ INFORMATIKA
- ★ FAX



San Roke, 26 - 20870 ELGOIBAR (Gipuzkoa)  
Tel.: 943 740 704 - 639 047 337  
Astelehena: 11:00 - 13:00 / 16:30 - 19:30  
Larribatak: 11:00 - 13:00

Inopardegia zerbitzua daukagu.  
Deitu ordua hartzeko.

barrena 11, EIBAR  
**garajesGarcía.com**

**Marka guztietako  
gurpiletan  
deskontuak!**



[www.garajesgarcia.com](http://www.garajesgarcia.com)  
[g.garcia@garajesgarcia.com](mailto:g.garcia@garajesgarcia.com)

Erakutsela: **943 820 697**  
Lanegia: **943 202 214**  
**943 127 271**

**6.000 €**



**TOYOTA AURIS 2014-4011UNA**  
Motorra: 20.0cm3 D Diesel  
Kilometroak: 264.000  
Egoera: erabilia

**4.000 €**



**GOLF 1.9 TDI HIGHLINE 190**  
Motorra: 20.0cm3 TDI Diesel  
Kilometroak: 248.000  
Egoera: erabilia

**4.000 €**



**CHEKVROLET KALOS 1.2 SE**  
Motorra: 1.2cm3 SE GASOLINA  
Kilometroak: 120.000  
Egoera: erabilia

**11.000 €**



**BERLINGO MULTISPACE 1.6 HDI TONIC**  
Motorra: 1.6cm3 3HDI Diesel  
Kilometroak: 60.000  
Egoera: erabilia

**13.000 €**



**TOYOTA AVENSIS 2.0 D4D ADVANCE**  
Motorra: 2.0 cm3 D4D Diesel  
Kilometroak: 100.000  
Egoera: erabilia

**13.200 €**



**OPEL INSIGNIA ST 20 CDTI SPORT**  
Motorra: 2.0 cm3 CDTI Diesel  
Kilometroak: 120.000  
Egoera: erabilia

Prezio guzti hauek finantziazterik daude.





## Hasier Etxeberriaren izaera kritiko eta setatia eta bere estilo fina goratu zituzten gertuko lagunek agur-ekitaldian

○stiral iluntzean agurtu zuten Hasier Etxeberria lagun eta gertukoek Elgoibarren, Kalegoen plazan egin zuten ekitaldi zibilean. Frontoia ezker paretaren kontra jarri zuten oholza, eta ehun bat aulki aurrean. Hasierrek berak prestatu zuen ekitaldia, eta haren “lagun minak” igo ziren oholtzara. Eszenatoki aurrean, lehen ilaran jarrita, familiakoak zeuden eta haien bueltan, dozenaka elgoibartar eta kanpotik etorritako jende ezagun ugari. Han zeuden, esaterako, Harkaitz Cano, Jasone Osoro, Jon Alonso, Juan Mari Irigoien, Koldo Izagirre eta Juan Martin Elexpuru idazleak, Aizpea Goenaga aktore eta zinema zuzendaria, Luistxo Fernandez kazetari eta informatikazalea, Mikel Lasa, Josu Erguin, eta Iñaki Larrañaga kazetariak, Josu Amezaga eta Ramon Zallo unibertsitateko irakasleak eta telebista munduko hainbat lagun, tartean Jose Mari Gabiria, Agustin Ezenarro, Zuhaitz Gurrutxaga eta Ibon Gaztañazpi.

### Hasier Etxeberria, lagunaren ahotan

Oholtzara igo ziren guztiek Hasier Etxeberriaren dohaiak zerrendatu zituzten. “Gizon handia”, “lagun ona”, eta gizon “tematika, egoskorra eta setatia” zela nabarmendu zuten guztiek, proiektu handiak sortu zalea. Eider Rodriguez idazlea izan zen hitza hartzen aurrenekoa. Rafael Chirbes idazle eta Hasier Etxeberriaren lagunak *Crematorio* lanean utzitako ahalpaldi bat ekarri zuen gogora: “Inor ez da bizi norberarentzat, eta inor ez da hiltzen norberarentzat; zer gauza sinplea eta aztoragarria era berean...”. Rodriguezek esan zuen hiltzen bezala jakin zuela Hasierrek bizitzen; “Artista izan zara”.

Jose Mari Gabiria ETBko kazetariaren berba sentituak irakurri zituzten ondoren, eta Martxelo Otamendi BERRIA egunkariko zuzendariak hartu zuen gero hitza. Aspaldiko laguna zuen Otamendik Etxeberria eta haren artista izaera nabarmendu zuen. “Lagunen maxizatzaile, ispilu bakarraren haustaile, egitasmoen su emantzale, kritikaren hauspoa, azalpenen arbela, besteen diskur-

tsoen jostun, kameren prima-donna, lapikoen astintzaile, artearen pintzel, izarretan euskaltzale, errealizatzaileen burukomin, argizatzaileen itzal kontortсионista, boterearen ikaratxo, jakinmin zurrupatzaile, jarrerren Marlon Brando” gisa definitu zuen.

*El Mundo*.eseko zuzendari izandako Gurmensindo Lafuente ‘Sindo’ kazetaria eta Eider Olazar Gazteluko auzotarra ere igo ziren oholtzara, eta “gizon handia eta benetako laguna” izan zela esan zuten. Ondoren, Joxerra Gartzia idatzitako testua irakurri zuen Olatz Yarza ETBko kazetariak. Esker on hitzak izan zituen Gartzia ere Hasier Etxeberriarentzat. Gartzia zioen beti miretsi izan zuela Etxeberriaren idazkera ez ezik haren “izaera gerlarria”, eta “euskal saltsa guztietan aitzindari eta tiraka ibili behar etsigaitza”. Jokin Arrospide Mahala etxeko jabea ere irten zen mikrofono aurrera, Hasier Etxeberriak lurrari zion maitasuna goratzeko. Arrospidek esan zuen baserri gaietan beti aholku eske ibiltzen zitzaiola Etxeberria.

Miresmen handia zien Etxeberriak idazleei, eta oso lagun zituzten hiruren berbak irakurri zituzten jarraian: Marie Darrieussecq, Bernardo Atxaga eta Joseba Sarrionaindiarenak. Darrieussecquek zioen oso pertsona inportantea izan zela Etxeberria bere bizitzan, besteak beste bere alderdi euskalduna berreskuratzea bultzatu zuelako. Atxagak eta Sarrionaindiak, berriz, Etxeberriaren “finezia eta egoskorkeria” azpimarratu zituzten. “Ez nuen uste hilko zela, ekinean bizi zelako”, zioen Sarrionaindiak. Ekitaldian, Gorka Arrese Susako editoreak eta *Zuzeu* eta *Sautrela* saioko lankideek ere parte hartu zuten. Oier Aranzabalek jardun zuen *Zuzeu*-koen izenean eta Beñat Sarasolak *Sautrela*-koen izenean. Etxeberriekin lan egin izana oso aberasgarri izan zitzaiela esan zuten.

Literaturarekin ez ezik sukaldaritzarekin ere lotura estua izan zuen Hasier Etxeberriak. Hala, euskal sukaldaritzaren aberasteko eta mundura zabaltzeko egindako lana eskertu zioten Juan Mari Arzakek eta Hilario Arbelaitzek. Agurekitaldia Mikel Laboaren *Sor-terriko koplak* kantuaekin bukatu zen. Bideoa: [www.barren.eus](http://www.barren.eus)

## Aurreku eta soinu zahar doinuek hartu zuten asteburuan Herriko Antzokia

Elgoibarko Aurreku eta Soinu Zahar txapelketa jokatu zuten joan zen zapatuan eta domekan Herriko Antzokian. Euskal Herri osotik etorritako 58 dantzarik parte hartu zuten lehiaketan, tartean Inazio Bereziartua Musika eta Dantza Eskolako hamabi ikaslek.

Zapatuan A saileko (11-15 urte) dantzariak igo ziren Herriko Antzokiko oholtza gainera. Irune Arriola, Nahia Urbiola, Eneko Etxaniz eta Jon Etxeberria izan ziren herritarren aurrean dantza egin zuten ikasleak.

Domeka goizean, berriz, B sailekoen (11-15 urte) txanda izan zen. Amaia Sasiain, Maddi Zabala, Jone Gil, Irati Marcos, Oihane Agirrebeña, Aimar Almorta, Markel Goenaga eta Gaizka Uranga izan ziren Elgoibarko ordezkariak. Guztiak "maila onean" aritu zirela azaldu dute Inazio Bereziartua musika eta dantza eskolako arduradunek.

Aurten ere Euskal Herriko hainbat herritatik etorri ziren dantzariak Elgoibarko



txapelketan parte hartzera: Oiartzun, Donostia, Lezo, Legazpi, Etxarri, Ibarra, Pasai Donibane, Azkoitia, Errenteria, Amasa-Villabona, Zizurkil, Aduna, Lizartza, Alkiza, Asteasu, Ziordia eta Alegi.

Gipuzkoako Euskal Dantzarien Biltza-

rak antolatzen duen ligaxkako hurrengo jardunaldia Lezon jokatu da apirilaren 29an, eta Elgoibarko bost dantzarik parte hartuko dute han: Nahia Urbiola, Irune Arriola, Jone Gil, Irati Marcos eta Oihane Agirrebeña.



### Ander Izagirrerren 'Naturzalia' bloga, Blogetan! lehiaketako finalisten artean

Azkie Fundazioak euskal blogarien bigarren topaketa ospatu zuen martxoaren 30ean, Argia aldizkariaren laguntzarekin, eta han banatu zituzten Blogetan! lehiaketako sariak. Guztira 129 blogek izena eman zuten lehiaketan. Lehen fasean, gustukoena aukeratzeko aukera izan zuen publikoak, eta hala, boto kopurua eta epaimahaiaren iritzia kontuan hartuta, hamabi blog sailkatu ziren finalerako, tartean Ander Izagirre Egaña elgoibartarraren *Naturzalia* bloga. Natura arloko gaiak jorrotzen ditu bertan. Zientzia eta teknologia kategoriako hiru blog finalistetako bat izan da *Naturzalia*. Izan ere, lau kategoriatan egituratu da lehiaketa: Kultura arloko blogak, gizarte eta politika arloa, aisialdiarekin erlazioatutako gaiak eta zientzia eta teknologia arlokoak. Azken horretan, Xabier Martinen *Iparra* blogak irabazi du. Euskaraz sortzen diren baliabide teknologikoen berri ematen du, eta baliabide teknologikoak euskaraz izateko aldarrikapen kanpainak martxan jartzen ditu, besteak beste.

Lehiaketaren helburua blogari euskaldunak "piztea" izan da, eta haien lanari oihartzuna ematea eta euren blogak sustatzea. Horretarako, egiten duten lana saritu dute blogaririk onenak aukeratzuz.


## Elgoibarren jokatuko dute Euskal Herriko Emakumezkoen Kopako finala



**E**lgoibarko Mintxeta futbol zelaian jokatu da Euskal Herriko Emakumezkoen Futbol Kopako finala, abuztuaren 27an. Txapelketa honetan, Espainiako Lehenengo Mailan parte hartzen ari diren hiru euskal taldeekin batera, Real Sociedad, Athletic de Bilbao eta Oiartzun, beste hiru taldek parte hartuko dute: Gasteizko Aurrera, Mulier (Mutiloa-Nafarroa) eta Genets (Angelu). Euskal Herriko Kopa Euskal Herriko emakumezkoen futbolaren txapelketa gorena da.

### Danel Zubizarreta pilotaria Gipuzkoako txapeldun

Gipuzkoako Eskolarteko Pilota Txapelketako eskuz binakako finalak jokatu zituzten Antzuolako frontoian, apirilaren 1ean. Kadeteetako finalean, Lagunak Pilota Eskolako kide Danel Zubizarreta elgoibartarrak eta Eneko Fuentes eibartarrak osatutako bikoteak eskuratu zuten txapela, Oñatiko bikoteari 18-12 irabazita.




### Tecnifuelle Elgoibar, Euskadiko txapeldunorde



Euskadiko Txapelketako Lauko Finala jokatu zuen Sanloko Tecnifuelle jubenilen taldeak Olaizaga kiroldogian. Barakaldoko Zuazo taldearen aurkako hirugarren eta azken partidara txapelketa irabazteko aukerekin ailegatu ziren arren, hamar goleko aldeaz irabazi beharra zuten eta zazpi goleko aldeaz irabazi zieten bizkaitarrei. Zarauzko Aiala taldeak lortu zuen lehen postua, bi partida irabazi eta elgoibartarren aurkako berdindu eta gero. Lehen hiru sailkatuek Espainiako Txapelketako fasea jokatu dute. Sanloko jubenil mutilen Beristain Banaketak taldeak ere asteburu berean jokatu zuen Euskadiko Txapelketako Lauko Finala, Zarautzen. Hiru partidak galdu ostean azken postuan sailkatu ziren.

### Ainhoa Lendinez txapeldunorde Cabraleseko Hiru Bertikaletan

Cabraleseko Hiru Bertikalak lasterketa berezi eta gogorra jokatu zuten mendiko saltakari onentsuenek Asturiasen, aurreko asteburuan. Zapatuan bi igoera bertikal egin behar zituzten, Calluengako eta Subisomaseko kilometro bertikalak. Dimekan, berriz, Avention igoera bertikala osatu behar zuten. Hau da, 24 orduetan hiru igoera bertikal egin zituzten. Emakumezkoetan, Maria Zorroza gernikarra izan zen azkarrena hiru igoeretan, eta Ainhoa Lendinez elgoibartarrak eskuratu zuten bigarren postua hiruretan.





## Jose Gurrutzagak ereindako haziak loratzen jarraitzen du

Elgoibar Ikastolak antolatuta, Jose Gurrutzaga krosa egin zuten aurreko domekan, Jose Gurrutzagarik gabe jokatu den aurrenekoa. Iaz hil zen Gurrutzagaren semeek hartu zuten aitaren lekukoa, eta beraien aritu ziren lasterketei irteera ematen. Antxiarikari saiatua eta nekazina izan zen Gurrutzaga, eta ia 90 urte bete harte jarraitu zuen saltaka. Gurrutzagarekin batera, iaz hil ziren Ricardo Garate eta Angel Iriando ere gogoan izan zituzten antolatzaileek, eta omenaldia egin zieten amaieran. Garatek kronometratzaile lanak burutu zituen urteetan. Iriando, berriz, Elgoibar Ikastolak antolatzen dituen hainbat ekintzetan esatari lanetan aritu izan da. Goizean goiz euria egin bazuen ere, aurreikusita zeuden hamahiru lasterketak arazorik gabe egin ahal izan zituzten parte hartu duten antxiarikariek, 700 bat inguru antolatzaileen esanetan.



## Imanol Alvarezek Gipuzkoako txirrindularitza selekzioarekin korritu du Federazio Kopa

Elgoibarko Lagun Taldeko bi txirrindularik, Imanol Alvarezek eta Ion Astigarragak, jubenetako Gipuzkoako selekzioarekin parte hartu zuten Valladoliden jokatu zen Federazio Kopan. Hain zuzen, Gipuzkoako selekzioko kide batek, Unai Iribarrek, irabazi zuen lasterketa, taldeak berarentzat eginko lanari esker. 125 kilometroko ibilbidean bost mendate igo behar izan zituzten eta beroak are gehiago zaildu zuen lasterketa. 180 txirrindularik parte hartu zuten proban.



Imanol Alvarez, ezkerretik hasita, bigarrena.

## Familian egiteko raiderako izen ematea zabalik da

Morkaikok familientzako orientazio raida ere antolatu du maiatzaren 6rako, Debabarrena orientazio raid probarekin batera. Ez dela proba lehiakorra azaldu dute. Herri barruan eta inguruko baserrietatik egingo da, eta oinez edo korrika txikian egiteko modukoa izango da. Ibilbidean zehar proba bereziak gainditu beharko dituzte. Morkaikoren egoitzan eman daiteke izena, eguen arratsaldetan. Bi eta bost lagun arteko taldeak izan behar dira (pertsone nagusi bat gutxienez). Partaide bakoitzeko prezioa 3 eurokoa izango da.



## Ander Gonzalezek irabazi du Realarekin Bartzelonara bidaiatzeko saria

C.D. Elgoibarrek Realarekin Bartzelonara bidaiatzeko saria zozketatu du: bi lagunentzako hegaldia, hotelean egonaldia eta txuri-urdinek Bartzelonaren aurka Camp Nou jokatu duten partidarako sarrerak. 2.946 izan da zenbaki saritua eta azaldu da txartelaren jabea: Ander Gonzalez.



Antton Iranzo C.D. Elgoibarko presidentea eta Ander Gonzalez.

## Kilimon Trail mendi lasterketa, domekan

Mendaroko Kilimon Trail mendi lasterketan izango dira domekan (apirilak 9) izen handiko hainbat lasterkerik eman dute izena: Mikel Etxebarria, Ruben Ruzafa, Jose Mari Bernedo, Igon Mancisidor, Unai Ori, Mario Olmedo, Pere Rullan, Julen Larruzea, Ander Barrenetxea, Alfredo Gil, David Lopez Castan, Erik Moya, Sheila Aviles, Paloma Lobera, Maite Maiora, Montse Vazquez.. 10:00etan abiatuko dira lasterkariak Herriko Enparantzatik eta 23 kilometroko ibilbidea osatu beharko dute. Iaz, Walter Becerra eta Virginia Perez izan ziren irabazleak. Mendaroko Txirindulari Elkarteak antolatu du Kilimon Trail mendiko lasterketa, Lizarpe Mendi Klubaren babesarekin.



## Emaitzak

### FUTBOLA

Elgoibar 3 – Martutene 0 (Haundi)  
Oartzun 2 – Elgoibar 1 (Erreg.)  
Elgoibar 1 – Ordizia 2 (Oho. Jub.)  
Mondragon 4 – Elgoibar 0 (1. jub.)  
Urki 0 – Elgoibar 2 (Oho. kad.)  
Orereta 1 – Elgoibar 3 (1. inf.)  
Elgoibar 1 – Eibar 2 (Inf. txiki)  
Elgoibar 4 – Ilintxa 3 (Aleb.)  
Elgoibar 4 – Aretxabaleta 3 (Aleb.)

### ARETO FUTBOLA

Tafatrans 5 – Concept Egile 6 (2B)

### ESKUBALOIA

Alcorta Elg. 21 – Uharte 34 (Sen. mut.)  
Basauri 30 – Lauko Elg. 17 (Sen. nesk.)  
Salento Elg. 27 – Saieko 27 (Sen. mut.)  
Cometel Elg. 31 – Urnieta 13 (Kad. nesk.)  
Usurbil 19 – Dario Elg. 31 (Kad. nesk.)  
Egia 29 – Bankoa Elg. 30 (Kad. mut.)  
Tolosa 21 – Murgil Elg. 25 (Inf. mut.)  
Modeltek 24 – Andoain Elg. 23 (Inf. nesk.)  
Aloña A 18 – Pneumax Elg. 19 (Inf. nesk.)  
Tecnifuelle Elg. 22 – Zarautz 22 (Jub. nesk.)  
Tecnifuelle Elg. 23 – San Adrian 22 (Jub. nesk.)  
Zuazo 23 – Tecnifuelle Elg. 30 (Jub. nesk.)  
Beristain Elg. 26 – Urduliz 33 (Jub. mut.)  
Beristain Elg. 24 – Eibar 31 (Jub. mut.)  
Zarautz 24 – Beristain Elg. 23 (Jub. mut.)

## Agenda

### ARETO FUTBOLA (IMH Kiroldegian)

Domeka, 9

12:30 Concepto Egile – Zierbena (2B)

### FUTBOLA (Mintxetan)

Zapatua, 8

12:00 Elgoibar – Orioko (Oho. kad.)

16:00 Elgoibar – Antigua Berri (Erreg.)

18:00 Elgoibar – Zestoa A (1. inf.)

Domeka, 9

9:30 Elgoibar – Zumaiakoa (Benj.)

### ESKUBALOIA

Zapatua, 8 (Kiroldegian)

10:00 Bankoa Elg. – Pulpo (Inf. mut.)

Zapatua, 8 (IMH Kiroldegian)

16:00 Urkunde Elg. – Urduliz (Kad. mut.)

Domeka, 9 (Kiroldegian)

12:15 Lauko Elg. – Ereintza (Sen. nesk.)

**LANA.....****Eskaerak**

Adinekoak zainduko nituzke. Esperientzia handia daukat.

☎ 635 005 536

Garbiketa lanak egiteko edo adinekoak zaintzeko prest nago. Esperientzia handia eta erreferentzia onak ditut.

☎ 688 712 075

Garbiketa lanak egiteko eta adinekoak edo umeak zaintzeko prest nago.

☎ 632 850 715

Garbiketa lanak egiteko eta adinekoak edo umeak zaintzeko prest nago.

☎ 612 493 242

Garbiketa lanak egiteko eta adinekoak edo umeak zaintzeko prest nago.

☎ 612 493 242

Garbiketa lanak egiteko eta adinekoak edo umeak zaintzeko prest nago.

☎ 662 430 951

Elkarteak edo portalak garbitzeko prest nago. Euskalduna naiz.

☎ 617 571 210

Adinekoak edo umeak zaintzeko edo garbiketa lanetarako prest nago. Interna edo orduka. ☎ 634 209 087

Adinekoak zaintzeko edo zerbitzari lanetarako prest nago. Esperientzia daukat. ☎ 616 085 126

Zapatu eta domeketan adinekoak zaintzeko edo etxeko lanak egiteko prest nago. ☎ 626 435 491 (Ildoia)

Kimikan graduatuak eskola partikularrak ematen ditu.

☎ 678 801 052

Adinekoak zaintzeko edo garbiketa lanak egiteko prest nago.

☎ 633 072 144

lan bila nabil. Lorezain, obrako peoi, eraikuntza lanetan, altzariak berritzen, fruta dendan... Edozer egiteko prest nago. Pintorea naiz, bigarren mailako titulu ofiziala daukat.

☎ 631 31 68 04

Elgoibartarra eta euskalduna etxeak garbitzeko prest.

☎ 649 782 967

Adinekoak zainduko nituzke. Interna ere bai. Esperientzia eta erreferentziak ditut.

☎ 632 490 649

Adinekoak zaintzeko eta garbiketa lanak egiteko prest nago.

☎ 688 698 854

Adinekoak zaintzeko eta garbiketa lanak egiteko prest nago.

☎ 688 712 075

Sukaldari laguntzaile edo zerbitzari lanetarako prest.

☎ 631 369 704

Adinekoak edo umeak zaintzeko prest nago, orduka. Esperientzia daukat.

☎ 632 436 462

Adinekoak edo umeak zaintzeko eta garbiketa lanak egiteko prest nago.

☎ 680 808 125

**ETXEBIZITZAK.....****Alokairua**

Hiru logelako etxea hartuko nuke alokairuan.

☎ 622 162 798

Bi logelatako pisua alokatzen dut Ubiltarten, igogailu eta altzari guztiekin.

☎ 656 720 238

Pisua edo logela bat behar dut alokairuan.

☎ 632 533 475

Pisua hartuko nuke alokairuan Elgoibarren.

☎ 631 369 704

**LOKALAK.....**

Taberna alokatzen da Elgoibar erdigunean. Terraza handia dauka.

☎ 656 724 401

50 metro koadroko lokala alokatu edo saltzen dut, Basariten.

☎ 669 245 520

Garaje marraduna alokatzen dut Pista Beltzean.

☎ 609 951 243

**BESTELAKOAK.....**

Tag Heuer Monaco etxeko erlojua galdutik kiroldegian. Saritu egingo da.

☎ 627 417 833

Merkatu txikiko iragarkiak hiru astez argitaratzen ditugu. Salmenta eta alokairu iragarkiak ordaindu egin behar dira.

Etxebizitzak, garajeak eta lokalak: 18€ (alokairua) - 22€ (salmenta). Autoak saltzea: 18€ . Bestelakoak: 10€.

Iragarkiarri erretratua jarri gero, 6€ gehiago ordaindu behar dira.

**BAZKIDEENTZAKO PREZIOAK:**

Etxebizitzak, garajeak eta lokalak: 15€ (alokairua) - 20€ (salmenta). Autoak saltzea: 15€. Bestelakoak: 8€. Iragarkiarri erretratua jarri gero, 5€ gehiago ordaindu behar dira.

administradores

Consejo Vasco de Colegios de Administradores de Empresas  
Euzko Enpresa Administrazioaren Kontseilua



**ROSA Mª  
PINTADO**

Etxaldean Administrazioako-Gradu ikasketen arduraduna Alcala de Henareseko Unibertsitatean, eta Gipuzkoa, Bizkai eta Arabako, Errioxako eta Kantabriako ikastetxeetan. Zuzenbidean lizentziatua. Kolegiatu zenbakia: 749

**660 969 679**

**rosapf@telefonica.net**

**Garajeetako ezohiko batzar batean, garajeak garbi mantentzeko zerbitzua kontratatzea erabaki genuen. Zalantza sortu zaigu, baina. Pertsona bat kontratatzen badugu zuzenean horretarako, geu izango al gara gerta daitezkeen lanarriskuen erantzule? eta pertsona horrek bere betebeharrak betetzen ez baditu, geu egin beharko al gara horren erantzule ere?**

Kanpoko enpresa bat kontratatzen duen komunitatea libre egongo da ardura horietatik. Enpresa hori izango da balizko lanarriskuen erantzulea eta langileek bete ez dituzten betebeharrengatik erantzun beharko duena. Komunitateak enpresarekin edo enpresa-jabearekin izango du harremana, eta ez langileekin.

**AHOLKUA: kanpoko enpresa bat kontratatzen duenean, komunitatea ez dago behartuta lan arriskuen prebentziorako plana egitera. Berez, komunitateak behartuta daude lan istripu posibleen balorazioa eta haiek sahisteko plana egitera zuzenean langileak kontratatzen badituzte, baina esandakoa: zerbitzu hori enpresa batekin lotzen dutenean, enpresa da lan horiek egin behar dituen.**



Argazkiak eguztzen eguerdia (12:00ak) baino lehen ekarri behar dira BARRENeko bulegora, edo [barren@elgoibarkoizarra.eus](mailto:barren@elgoibarkoizarra.eus) e-postara bidali.



Zorionak, **printzesa!** Ondo pasatu zure egunean! Milaka muxu familiakoen partez.



Zorionak, **Malen,** 3 urte egingo dituzulako. Muxu asko familiakoen partez. Ondo ospatu domekan.



Zorionak, **Alaine,** gaur 7 urte egin dituzulako. Familiako guztion partez.



Aupa, **Nora!** 9 urtiak ederki ospatuko ditugu! Zorionak eta patxo haundi bat etxe-kuon eta, bereziki, Iratiren partez.



Zorionak, **Danel!** 4 urte potolo! Muxu handi bat etxe-kuon, eta bereziki, Peioren partez.



Zorionak, **Luna!** 6 urte handi! Muxu potolo bat familiakoen eta bereziki, Aliaren partez.



Zorionak, **Eulali,** asteazkenean 5 urte potolo egin zenituelako. Patxo pila bat!



Zorionak, **Miren!** Urtetxo bat!



Zorionak, **Einer,** 10 urte bete dituzulako. Muxu pila bat Junesen eta etxe-kuon guztion partez. Segi horrela, txapeldun!



Zorionak, **Marcel,** astelehenen 9 urte egingo dituzulako. Etxekoan, eta bereziki, Enekoen partez.



Zorionak, **Luken,** apirilaren 9an 4 urte egingo dituzulako. Muxu handi bat familiakoen partez.

Erretratu bakarreko agurra: 4,50€. Argazki bikoitza: 7€. Hirukoitza: 9€. Hiru lagunetik gorako taldeak: 15€.

#### ELGOIBARKO IZARRAKO BAZKIDEENTZAKO PREZIOAK

Erretratu bakarreko agurra: 3,50€. Argazki bikoitza: 6€. Hirukoitza: 8€. Hiru lagunetik gorako taldeak: 12€.

## 1967 ko kintoak

- ◆ **Bazkaria:** Maiatzak 20, Sigma jatetxean
- ◆ **Kedada:** 11:30ean Kalegoen plazan
- ◆ **Kopurua:** 70€
- ◆ **Kontua:** ES44 0138 0020 1600 10783437 (Bankoa)
- ◆ **Harremanetarako telefonoa:** 639 263 501
- ◆ **Ingresoa egiteko azken eguna:** 2017/05/16

**PINTURA ETA DEKORAZIOA**  
**CORDON VILARCHAO**  
 cordonvilarchao@telefonica.net  
 San Roke, 7 - Olasope, 18, Pab. 25-26  
**943 740 570 / 636 98 61 62**

**Uzuri** ELGOIBAR - DEBA  
 optika audio

San Frantzisko, 21 - Elgoibar  
 Tel.: 943 740 359 [www.uzurioptika.com](http://www.uzurioptika.com)

**EGUZKITAKO BETAURREKOETAN AUKERA ZABALA.**

**19€** gehiagogatik **GRADUATU ITZAZU!**

\* Kontultatu baldintzak

## 7 BARIXAKUA

**20:00** Antzerkia: 'On Kixote Oizpean'. Markinako Bera Kruz ikastetxeko DBHko ikasleek antzeztuko dute, Mendaroko San Agustin kulturgunean. Sarrera doan. Leire jantzidendan eskatu behar dira sarrerak.

**21:30** Zine foruma: 'La buena mentira'. Kafea hartuko dute lehenengo eta filma 22:00etan hasiko da. Loredi Salegik dinamizatuko du saioa. Antolatzailea: Haizea.

## 8 ZAPATUA

**11:30** Atxutxiantxitxika. Elgoibarko Izarrak antolatuta, HH2-LH2 arteko umeentzat. Kalegoen plazan.

## 9 DOMEKA

**9:30** Mendi irteera Ixua-Kalamuara. Morkaikok, Herri Eskolak eta Elgoibar Ikastolako gurasoek antolatuta. Mintxetako aparkalekuan elkartuko dira, eta autoz joango dira Ixua, handik Kalamuara igotzeko.

**12:30** Udal Musika Bandaren kontzertua, Herriko Antzokian.

1. *Torre del oro* (R. Dorado)

2. *Coppelia* (L. Delibes)

3. *La madrugá* (Abel Moreno)

4. *Los puentes de Paris* (E. Moreno)

Esku soinua eta banda. Bakarlaría, Ainhoa Zapata.

5. *West side story* (Bernstein-Iwai)

## 20 EGUENA

**20:30** Dokumentala: 'Ama, nora zoaz?'. Elgoibarko Udalak antolatuta, Herriko Antzokian. Doan.

## 21 BARIXAKUA

**20:30** Zartzuela: 'El duo de la africana'. Herriko Antzokian.

## Botika ordutegiak

09:00 - 13:00 / 16:00 - 20:00

### Guardiak

**09:00 - 22:00**

7 Barixakua YUDEGO

8 Zapatua ORUESAGASTI

Goizez: YUDEGO

9 Domeka ORUESAGASTI

10 Astelehena BARRENETXEA

11 Martitena IBAÑEZ\*

12 Eguaztena GARITAONANDIA

13 Eguena ORUESAGASTI

14 Barixakua ORUESAGASTI

15 Barixakua ETXEBERRIA

16 Zapatua ETXEBERRIA

17 Domeka ETXEBERRIA

18 Astelehena BARRENETXEA

19 Martitena IBAÑEZ\*

20 Eguaztena GARITAONANDIA

21 Eguena ETXEBERRIA

**20:00 - 22:00**

\* Guardia Elgoibartik kanpora denean, asteburuetan ezik:

BARRENETXEA (Elgoibar)

Errosario, 26 - Tel.: 943 741 277

**22:00 - 09:00**

MANDIOLA (Eibar)

San Agustin, 3 - Tel.: 943 820 533

- FERNANDEZ: Herriko enparantza 4, Garagartza (Mendaro)

Tel.: 943 756 142

- IBAÑEZ: Rekalde, 1 (Soraluze)

Tel.: 943 751 638

- ORUESAGASTI: Kalebarren, 9

(Soraluze) Tel.: 943 751 384



**ZEINTZUK DIRA AUTO  
BAT RENTING BIDEZ  
EROSTEAREN  
ABANTAILAK?**

**P**artikular batentzat autoa Renting bidez erostea nahiko formula garestia da. Gainera, partikularrentzat ez dauka inongo abantaila fiskalik. Halere, autonomoentzat edo enpresentzat egokia izan daitekeen produktua da eta azken urteetan gozantzko tendentzia darma. Abantaila garrantzitsuena honako hauek dira:

- Zergei dagokienez, kuota osoa gastu kengarri gisa hartzen da.

- Enpresa edo negozioaren zorpetze ratioak hobetzen ditu.

- Administrazio lanak arintzen ditu. Izan ere, Rentingarekin lotutako kudeaketa guztia Rentingeko enpresaren ardurapean gelditzen da.

- Ibilgailuarekin erlazio-naturiko kostuak kostu finko bihurtzen dira, izan ere, kuotoaren kostuaren barruan daude sartuta. Espera gabeko kostuak Rentingeko enpresak ordainduko ditu.

Atal honetarako galderarik proposatu nahi izanez gero idatzi helbide elektronikoko honetara: [galderak@bankoia.es](mailto:galderak@bankoia.es)



**943 744 112**

Kalebarren plaza, 2  
20870 ELGOIBAR



## Zinea (Herriko Antzokian)

## 'Moonlight'




7 barixakua: 21:30  
8 zapatua:  
19:00 / 22:15 VOS  
9 domeka: 19:00  
10 astelehena: 21:30

## 'La vida de calabacín'



9 domeka: 16:30

## 'Jackie'




13 eguena: 21:30  
14 barixakua: 21:30

## 'Manchester frente al mar'



15 zapatua:  
19:00 / 22:15 (VOS)  
16 domeka: 19:00  
17 astelehena: 21:30

## 'Sava, corazón de guerrero'



16 domeka: 16:30

## Martxoan hildakoak

## . Jesus Maria Etura Etxeberria

89 urte, martxoak 2

## . Justo Arriola Zubiaurre

89 urte, martxoak 7

## . Juan Ansola Aginaga

73 urte, martxoak 8

## . Iker Amutxastegi Fernandez

41 urte, martxoak 13

## . Jose Gomez Garcia

90 urte, martxoak 14

## . Mari Carmen Lizarralde Txurruka

91 urte, martxoak 16

## . Mariano Leiaristi San Martin

91 urte, martxoak 23

## . Juanita Zulaika Arriola

99 urte, martxoak 26

## . Hasier Etxeberria Canales

59 urte, martxoak 29



# ETXEBERRIA

## EHORZKETA-BEILATOKIA

943 741 327 (24 orduz)

635 756 295

629 635 203

Santa Klara, 16 - Elgoibar  
[info@funerariaetxeberria.com](mailto:info@funerariaetxeberria.com)  
[www.funerariaetxeberria.com](http://www.funerariaetxeberria.com)

Kutzak, trasladoak eta koroak.  
 Norbanakoei eta konpainiei zuzenduriko zerbitzuak.  
 Erietxe zentruetan zerbitzuak.



Iosu Juaristi

## Ainhoa Lendinez



// Oin dala 38 urte-edo izan zan. Negua zan. Gaueko ordu txikitan zarata entzun nuan kalian. Leihora urten eta furgoneta baten atzian ó bat lagun ikusi nittun korrika, elur maluten azpizan. Ez nakixan zer zan, baiña hunkittu egin nitzan. Ez ziran zoruak, zeoze ari ziran eskatzen. Ni erdalduna nitzan orduan". Hala kontatu ditt amak nola eza-gutu zaban Korrika. Handik gitxira hasi zan AEKn, euserkia ikasten. Garai hartan hiru bat lagunek zeharkatzen zebeñ herri osua, ez zegualako jenderik lekukarekin errelebuak osatzeko. Gaur, berriz, metro bihurtu dira kilometruak, gero eta gehixago diralako lekukua eraman nahi debeñ euskaldunak. Aurten herrixan egin dot Korrika. Osaba Gotzonekin akordatu naiz ibilbidian, Hasier Etxeberriarekin ere bai. Deustun Euskal Filologian izandako lehen eskolekin. Lehengusiña Garazik bizi dauan euserkarako munduarekin. Akordatu naiz *Berria* egunkariko lagun eta lankidiek egitten debeñ lan ezin hobetuzkuarekin. Espetxie-

tatik eta espetxietara egunero euserkarak idazten diran gutunekin. Akordatu naiz orain hillabete Maialen Lujanbiok eta Uxue Alberdik euserkarak eta euserkatik egindako hitzaldi bikaiñarekin. Gogora etorri jata zenbat ikasi naban orain urtebete, *Koldo Mitxelena in memoriam* Gasteizko jardunaldixetan entzun naban euserkara aberatsarekin. Baiña akordatu naiz, era berian, lagun dittudan *euskaldunberrixekin*. Haiekin izaten dittudan solasaldi apartekin. Haien ilusiuarekin. *Kutxidazu bidea Ixabel* ekin. Lorea Agirrek orain bi urte euserkariari idatzittako mezu hunkigarrixarekin. Baiña bereziki akordatu naiz martxuaren 30etik eskuz esku euserkariaren lekukua hartzen debeñ haur, nerabe, heldu eta zaharrekin. Enkarterritik Sakanaraiño, Maule, Gasteiz, Iruñea, Azkaine eta Errexil. Munduan hizkuntza baten alde egitten dan ekimenik haundixena. Eta bakarra. "Zuek euki eta gero, bizitzan egin doten gauzarik ederrena euserkia ikastia izan da". Amak eman zidan niri euserkariaren lekukua, eta harekin batera mundu bat. Otxandiotik Iruñera doana gaur; eta bihotzetik ahora egunero.

*"Amak eman zidan niri euserkariaren lekukua, eta harekin batera mundu bat"*



## Martina Zabaleta Azurmendi

2017ko apirilaren 1ean hil zen, 96 urte zituela.  
Sendiak bihotzez eskertzen ditu jasotako doluminak,  
bai eta hileta elizkizunera agertu izana ere.


**Denborak samina arintzen omen du,  
baina zure oroitzapen  
goxoa ezerk ez du lausotuko**

Zure sendiak



## Hasier Etxeberria Canales

2017ko martxoaren 29an hil zen, 59 urte zituela.  
Sendiak bihotzez eskertzen ditu jasotako doluminak,  
bai eta agur ekitaldira agertu izana ere.



I. URTEURRENA

## Jose Luis Ajubita Unzueta

2016ko apirilaren 5an hil zen, 89 urte zituela.  
Sendiak bihotzez eskertzen du  
I. urteurreneako elizkizunetara agertu izana.



I. URTEURRENA

## Gregorio Saiz Hervias

2016ko apirilaren 5ean hil zen, 74 urte zituela.  
Haren oroimenez I.urteurreneko meza izango da, zapatuan,  
apirilaren 8an, 19:00etan, Elgoibarko Bartolome Deunaren  
eliz-parrokian. Joango zaretanoi alde zurretik eskerrak.

**"Nahiz eta guregandik  
joan zaren aparte,  
bihotzak ongi daki  
zenbat ginen maite.  
Zerutik begira  
izarren bitarte,  
hau ez da agur bat,  
baizik gero arte.**



# Gremioen gida

Aroztegiak  
Elektrizitatea  
Igeltseritza  
Iturgintza  
Leihoak  
Pintura

## ELEKTRIZITATEA

**iparelek**<sup>s.l.</sup>  
elektrizitatea

Kilimon hiribidea, 1 - Mendara  
943 530 356

[iparelek@gmail.com](mailto:iparelek@gmail.com)  
[iparelek.com](http://iparelek.com)

**CARRANZA,**  
ELEKTRIZITATEA

Uparitzaga 10, 6.B  
Elgoibar  
[karranzaj@gmail.com](mailto:karranzaj@gmail.com)  
Tel.: 943 741 280  
Jose Luis: 626 555 999

**egoluz**

ELEKTRIZITATEA S.L.  
(lehen TAES)

Ego-Gain, 9 AC  
20600 EIBAR

Andres: 630 957 345  
Raimon: 677 512 462  
Bulegoa: 943 200 697

## LEIHOAK

**LODOSO**  
LEIHOAK

SIGMA INDUSTRIAGUNEA, 223  
[lodosofj@gmail.com](mailto:lodosofj@gmail.com)  
Tel.: 943 74 34 90

## ERREFORMAK

**ESTUDIOS**  
ARRILLAGA

Errosario kalea, 15 beheak - Elgoibar

943 744 019  
605 713 168

- \* Proiektuak
- \* Erreformak
- \* Gremioen koordinazioa
- \* Obren zerbitzu integrala

## ITURGINTZA

**SANTANA**  
Igor Santana

ITURGINTZA ETA INSTALAZIOAK S.L.

Urazandi kalea 17, beheak  
Elgoibar  
943 740 530 / 605 714 905  
[santanaiturgintza@gmail.com](mailto:santanaiturgintza@gmail.com)

**PAGOERROTA**  
ITURGINTZA

Herriko Erparantz, 10 beheak  
MENDARO  
943 75 60 44 / 628 529 692  
Faxa: 943 75 60 37  
[pagoerrotaf@pagoerrotaiturgintza.com](mailto:pagoerrotaf@pagoerrotaiturgintza.com)  
[www.pagoerrotaiturgintza.com](http://www.pagoerrotaiturgintza.com)

**ongi** Iturgintza

Pedro Muguruza Etorbidea, 11  
ELGOIBAR  
Tel.: 943 254 522  
Faxa: 943 254 523  
[ongi@ongielgoibar.com](mailto:ongi@ongielgoibar.com)  
[www.ongielgoibar.com](http://www.ongielgoibar.com)

**FONTANERIA**  
**Ibámar**  
ITURGINTZA

San Roke 10-A, beheak B  
Elgoibar  
Floren Cid: 647 463 436  
[ibamar@euskalnet.net](mailto:ibamar@euskalnet.net)

**TELLABIDE**  
ITURGINTZA

Azpilgoeta 7 beheak - Mendara  
Tel.: 943 755 062 / 607 755 062  
[iturgintzatefabbide@hotmail.com](mailto:iturgintzatefabbide@hotmail.com)

**PAGOAGA** S.A.

BULEGOA ETA ERAKUSKETA  
Pedro Migel Urzuzo, 8  
Tel.: 943 740 512 / Faxa: 943 743 585  
[bernda@pagoagasa.com](mailto:bernda@pagoagasa.com)  
[www.pagoagasa.com](http://www.pagoagasa.com)

BILTEGIA  
San Antolin, 13 - Tel.: 943 740 279  
[taller@pagoagasa.com](mailto:taller@pagoagasa.com)  
ELGOIBAR

## AROZTEGIAK

**BICNA**<sup>S.L.</sup>  
AROZTEGIA

Ermuaranbide, 12-14-16  
tel/fax. 943 743 116  
[www.bicna.eus](http://www.bicna.eus)  
[info@bicna.eus](mailto:info@bicna.eus)



**MAR**  
AROZTEGIA

Olaso industriagunea, 17 beheak  
943 531 471  
609 054 978  
[carpinteriaimare@hotmail.com](mailto:carpinteriaimare@hotmail.com)



**iraolagoitia**  
aroztegia · altzariak · etxe-aldaketak

Kurutz-gain industriagunea, 9  
20850 Mendara  
Tel.: 943 756 112 / 636 497 485

[www.iraolagoitia.com](http://www.iraolagoitia.com)

Aroztegia · Carpinteria  
**ASIMA**

Ermuaranbide, 18 - Elgoibar

687 150 226  
650 026 631  
636 886 322  
943 744 225

[asimaaroztegia@gmail.com](mailto:asimaaroztegia@gmail.com)

**Ulazia**  
AROZTEGIA ETA ENBALAJEAK

Albitxuri industriagunea, 1-0/ 1-P  
943 740 547



## IGELTSERITZA

**E. ARANDIA**

ERREFORMA ETA LEIHOAK

Urazandi, 22 beheak - Elgoibar

Tel.: 605 705 204

Gremioen arteko  
koordinazioa.  
Pladurrarekin ere  
lan egiten dugu.

IGELTSERITZA  
**CAMILO**  
**ALVAREZ**

Jardiñeta, 25 beheak  
EIBAR

Ernesto: 620 060 104  
Fran: 600 465 789

**A. Garate**

Era guztietako  
igeltseritza lanak  
egiten dituzte

[angelmgarate@gmail.com](mailto:angelmgarate@gmail.com)  
Santa Ana kalea, 28 beheak - 2. zbia  
Elgoibar

610 226 651

## PINTURA

**BIOK**  
dekorazioa

Uparitzaga, 14 - Elgoibar

943 741 552  
606 431 120

[biok@biokdekorazioa.com](mailto:biok@biokdekorazioa.com)

Gremioen gida